

NORA

ZOAZ..?

(Geznaria ta Artzaiña)

G.—Nora zoaz, artzaintxoa?
Nora zoaz joranez?
Ardiak deslai itxita,
nora zoaz zu iges...?

A.—Aingeruaren abotsa
entzun dot nik zelaian:
*«Zoaz arin ikustera
Belen'en zer jazo dan».*
Zer jazo da, ba, Belen'en
zu olan agertzeko?

G.—Jaungoikoa Aur eginda
gizonok gaizkatzeko.
Antxe aurkituko dozu
estalpe zar batean,
Ume bat zapiz bilduta
askan, lasto ganean.

A.—Nortzuk dira or goietan
abestuten dabenak?,
argitasunez beterik
Belen inguru danak?

G.—Aingeru talde andia
poz-pezik abestuten,
gizon zintzo guztiei
Barri Onak emoten.

Zoaz, ba, Belen aldera;
gurtu Jesus maitea:
Berak dakar gizonontzat
osasuna ta bakea.

GABIREL

